

2006KO APIRILAREN 12KO BATZARRAREN AKORDIO PROPOSAMENA, 4. PUNTUA

LEHENENGOA: “Anoeta Lantzen, S.A.” erakundearen kapital sozial guztia erabat erostea eta ordaintzea, zeinaren bazkide bakarra Anoetako Udala den, HIRUROGEI MILA EHUNTA BAT EURO ETA HOGEITA BAT ZENTIMOTan (60.101,21 €) eta era honetan ordaintzea:

- 45.075,91 EURO Anoetako Plangintzako Arau Subsidiarioetan “S1 Lasarbe” Barrutian eta “A1 4 Hiri-Parkean” kokaturiko B lursailaren jabetzaren ekarpena eginez, honen erregistro-datuak honako hauek direlarik: Liburukia:_____, Anoetako Liburua:_____, Folioa:_____, Finka:_____ eta 608,34m₂-ko azalera duena.
- 15.025,30 EURO 2005eko ekitaldiko aurrekontutik dagoeneko eginiko ekarpenaren bitartez.

BIGARRENA: Fidel Azpiroz Arrillaga alkate jaunari Anoetako Udalaren izenean egiteke dagoen ordainketa arestian aipaturiko lursailaren titulartasunaren ekarpena eginez gauzatzeko baimena ematea, baita Notario aurrera azaldu, dagokien Eskritura Publikoak sinatzeko, are, zuzendu eta osatzeko, eta Merkataritza Erregistroan Sozietatearen inskripzioa egin eta izapidetze hauek burutzeko behar diren beste guztiak egiteko ere.